

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Iragarkia*

Zarauzko Udalaren erabakia: Administrazio bereziko erdi mailako teknikari plaza bat, barne-sustapen bidez, betetzeko oinarriak eta deialdia onartzekoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko urriaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen administrazio bereziko erdi-mailako teknikari plaza bat (zerga-biltzailea), barne-sustapen bidez, betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri onartzea eta dagokien deialdia egitea.

Zarautz, 2018ko urriaren 17a.—Alkatea. (7035)

*Zarauzko udalean administrazio bereziko erdi-mailako teknikari plaza bat barne-sustapen bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri arautzaileak.*

**1. Deialdiaren xedea.**

Deialdi honen xedea da Udal honetako funtzionarioen plantillan hutsik dagoen erdi-mailako teknikari plaza bat betetzea, barne-sustapenez (txanda mugatuan) eta lehiaketa-oposizio sistemaren bidez.

Plazaren sailkapena: Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa, Erdi-mailako Teknikarien Klasea eta A2 Sailkapen Taldea.

Plazaren titularrak erretiroa hartu ondoren beteko da postua (2018ko abendurako aurreikusita dago).

2017ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Udaltzatzen erabaki zuen erdi-mailako teknikari plaza bat sortzea (A2 taldea), Zerga-biltzaile/Agente Exekutiboaren egungo plaza (C1 taldea) iraungitza jo ondoren, bere titularrak erretiroa hartuko duelako.

Ondorioz, lanpostuaren balorazioa eta ezaugarriak behin-behinekoak dira, eta egungo titularraren erretiroa gertatzen den unean egingo da horien egokitzapena.

Plazaren dedikazio-erregimena ohiko lanaldiarena da. Udalak urtero jartzen duen lanaldia izango du, beti ere, lanpostuaren izaera eta behar bereziak kontuan hartuta.

**2. Plazaren ezaugarriak.**

Plaza kopurua: 1.

Lanpostuaren izena: Zerga-biltzailea.

Departamentua: Diruzaintza.

Sailkapen taldea: A2.

Azpitaldea: A2.

Destino osagarria: 21 (behin-behinekoa).

Berariazko osagarria: Hileko 1.262,67 euro gordin (behin-behinekoa).

Lanaldi-erregimena: % 100.

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Anuncio*

Acuerdo del Ayuntamiento de Zarautz por el que se aprueban las bases y la convocatoria para la provisión, por promoción interna de una plaza de técnico de grado medio de Administración especial.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 15 de octubre de 2018, acordó aprobar las bases del proceso selectivo para la provisión, mediante promoción interna, de una plaza de técnico/a de grado medio de administración especial (recaudador/a) y efectuar la correspondiente convocatoria.

Zarautz, a 17 de octubre de 2018.—El alcalde. (7035)

*Bases reguladoras del proceso de selección para la provisión por promoción interna de una plaza de técnico/a medio/a de administración especial del Ayuntamiento de Zarautz.*

**1. Objeto de la convocatoria.**

Es objeto de la presente convocatoria la provisión por promoción interna –turno restringido– mediante el sistema de concurso-oposición de la plaza de Técnico/a de grado medio vacante en la plantilla de funcionarios de este Ayuntamiento, incluido en la OPE 2018.

La plaza pertenece a la Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, Clase Técnicos Medios, Grupo de Clasificación A2.

La incorporación al puesto se producirá tras la jubilación de su titular, prevista para el mes de diciembre de 2018.

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 11 de diciembre de 2017, creó una nueva plaza de técnico de grado medio (grupo A2), declarando a extinguir la actual plaza de Recaudador/a Agente Ejecutivo/a (grupo C1), con la jubilación de su titular actual.

En consecuencia, la valoración y características del puesto de trabajo son de carácter provisional, llevándose a cabo su adecuación en el momento en el que se produzca la jubilación de la actual titular.

El régimen de dedicación de la plaza es de jornada ordinaria. La jornada de trabajo será la que establezca anualmente el Ayuntamiento, atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto de trabajo.

**2. Características de la plaza.**

N.º de plazas: 1.

Denominación del puesto: Recaudador/a.

Departamento: Tesorería.

Grupo de clasificación: A2.

Subgrupo: A2.

Complemento de Destino: 21 (provisional).

Complemento específico: 1.284,76 euros brutos mensuales (provisional).

Régimen de jornada: 100 %.

*Dedikazioa:* ohikoa. Gaur egun lanpostuak % 15eko dedikazio-osagarria dauka; hori hala mantendu da bere egunean Agente/Zerga-biltzaile plazan sartzeko zeuden zirkunstantziak kontuan hartuta, baina orain ez da aurreikusten dedikazio hori mantentzea.

*Hizkuntza-eskakizuna:* 3. HE, nahitaezkoa, derrigortasun-data gaindituta.

*Hornitzeko era:* barne-sustapena.

*Txanda:* mugatua.

*Hautaketa-sistema:* lehiaketa-oposizioa.

### 3. Lanpostuaren funtzioak.

Hauek dira deialdi honetako xede den lanpostuaren funtzioak:

– Bere kargu dauden giza baliabideak, ekonomikoak eta materialak zuzendu, koordinatu eta gainbegiratu.

– Bere kargu dituen langileen jarduerak zuzendu eta koordinatu, eta langileen artean lan-zama behar den bezala banatu.

– Bere kargu dauden lanpostuek jarraitu beharreko ildo operatiboak finkatu, emaitzak ebaluatzeko irizpideak jarri, eta bere goi-hurrengo arduradunari helburuen berri eman.

– Zerbitzuaren antolaketa hobetzeko proposamenak egiten lagundu.

– Departamentuko gainerako lanpostuei behar duten laguntza dokumental eta tekniko eman, eta haiekin beharrezkoak diren koordinazio-bilerak egin.

– Zerga-bilketari eragiten dion indarreko araudia eta zergak zein trafiko-isunak kobratzeko prozeduretan erabiltzen den dokumentazioa eguneratuta eduki, diruzainaren laguntzarekin.

– Kobrantzen bilketaren kudeaketa kontrolatu, bai borondatezko epean bai epe exekutiboan (ordainagiriak, likidazioak eta isunak, kobrantzak eta zerga-bilketako balioen kontabilizazioa eta zaintza), eta gai horiei buruzko edozein gertakariren berri eman diruzainari.

– Herritarrek zein beste erakundeek zerga-bilketaren arloan egiten dituzten kontsultei erantzun, eta arazo espezifikoko konpondu. Informazioa, ordainagiriaren kobrantza, frogagiriak, erreklamazioak, egiaztatagiriak, etab.

– Kobrantzako eta kudeaketako epeei buruzko iragarkien publikitatea prestatu, bidali eta kontrolatu.

– Zorrak kobratuko direla ziurtatzeko kautelazko neurriak jarri.

– Diruzaintzako kontu operatiboetara intsuldatzen diren hileko likidazioak kontrolatu.

– Bidegabeko diru-sarreraren itzulketen eskaerak tramitatu.

– Erakunde laguntzaileen kudeaketa berrikusi eta frogatu, bai eta kobrantza-prozedurako programa informatikoen funtzionamendu ona ere. Eta edozein anomalia gertatzen bada, horien arduradunekin lan egin.

– Geroratze eta zatikatze espedienteak aztertu, horien gaineko txostenak egin eta tramitatu (bai borondatezko epean bai epe exekutiboan), diruzainarekin batera.

– Ofiziozko konpentsazioak proposatu.

– Premiamendu-espedienteak kudeatu: ireki, jakinarazi eta ondasunen enbargoa eta enkantea egin, hala badagokio.

– Premiamendu-prozedura eten, hala egin behar denean, eta alde zuzenetik kobraezin modura aitortutako kredituek bat-batean sortutako kaudimena zaindu, eta haiek aktibatzeke proposamena egin.

*Dedicación:* ordinaria. En la actualidad el puesto de trabajo tiene un complemento de dedicación del 15 % que se ha mantenido en atención a las circunstancias de acceso en su día a la plaza de Agente-Recaudador y cuyo mantenimiento no está previsto.

*Perfil lingüístico:* 3. preceptivo, con fecha de preceptividad vencida.

*Provisión:* promoción interna.

*Turno:* restringido.

*Sistema de selección:* concurso-oposición.

### 3. Funciones del puesto.

Las funciones del puesto objeto de la presente convocatoria son las siguientes:

– Organizar, coordinar y supervisar los recursos humanos, económicos y materiales a su cargo.

– Dirigir y supervisar las actividades del personal a su cargo, estableciendo una adecuada distribución de la carga de trabajo entre el mismo.

– Fijar las directrices operativas a seguir por el personal a su cargo, estableciendo criterios de evaluación de los resultados e informando de los mismos a su responsable inmediato.

– Colaborar en propuestas de mejora organizacional del servicio.

– Dar apoyo documental y técnico necesario al resto de puestos de trabajo del departamento, y realizar reuniones de coordinación necesarias con los mismos.

– En colaboración con el/la Tesorero/a, mantener actualizada la normativa vigente y la documentación utilizada en los procedimientos de cobro tanto de tributos como de sanciones de tráfico que afecte a Recaudación.

– Controlar la gestión recaudatoria de cobro, tanto en periodo voluntario como en ejecutivo: recibos, liquidaciones y sanciones, cobros, contabilización y custodia de valores de recaudación, informando al/ a la Tesorero/a de cualquier incidencia al respecto.

– Atender, consultas y solventar problemáticas específicas de ciudadanos, así como de otros organismos que en materia de recaudación puedan plantearse. Información, cobro de recibos, emisión de justificantes, reclamaciones, petición de certificados, etc.

– Preparar, enviar y controlar la publicidad de anuncios sobre periodos cobratorios y de gestión.

– Establecer medidas cautelares para asegurar el cobro de las deudas.

– Controlar las liquidaciones mensuales que se traspasan a las cuentas operativas de Tesorería.

– Tramitar las solicitudes de devolución de ingresos indebidos.

– Revisar y comprobar la gestión de las entidades colaboradoras, así como el correcto funcionamiento de los programas informáticos del procedimiento de cobro, colaborando con los responsables de los mismos ante cualquier anomalía al respecto.

– Analizar, informar y tramitar los expedientes de aplazamientos y fraccionamientos tanto en periodo voluntario como en ejecutivo, en colaboración con el/la Tesorero/a.

– Proponer las compensaciones de oficio.

– Gestionar los expedientes de apremio: apertura, notificación, embargo de bienes y subasta, si procede.

– Suspender el procedimiento de apremio cuando proceda, así como la vigilancia y propuesta de rehabilitación de la solvencia sobrevenida de créditos declarados previamente incobrables.

- Zorrak metatzeko edo banantzeko eginbideak egin.
- Ondasun eta eskubideak enbargatzeko eginbideak egin.
- Enbargoa kentzeko eta ezerezteko agindu.
- Interesdunak hala eskatzen badio, enbargo-agindua aldatu, kobrantza eraginkortasunez eta azkar egingo dela bermatzeko.
- Zerga arloan garrantzia duen informazioa ikertu eta esku-ratu edozein erregistro publikotan, zordunen jabetzen informazioa eguneratu eta etengabe garbitu, eta dagokien erregistroetan idatzi.
- Ondasun higiezinak besterendu aurreko tramiteak kudeatu (balorazioak, kargak, tituluak, etab.), eta diruzainari proposamena egin zerga-bilketaren prozeduran.
- Diruzainari baimena eskatu ondasunak enkantean ateratzeko.
- Kobrantza kudeatzeko Foru Aldundiari bidali behar zaizkion ordainagiriak hautatzeko irizpideak jarri, eta bidalitakoaren segimendua egin, baita beste zerga-bilketa prozesu batzuetarako ere.
- Konkurtso-prozeduren segimendua egin, kobratzeko dagoen zorraren berri eman konkurtsoko administratzaileei, zorra hartzekodunen hitzarmenetan sartu ote den eta horri eman dioten kalifikazioa kontrolatu, eta konkurtsoaren ondorengo zorraren segimendua egin.
- Zordun eta zor kobraezinen, preskripzioen, ezerezteen, erreferentzia bidezko bajen eta abarren espedienteak prestatu, eta diruzainari onartzeko proposatu.
- Zergazko zorren eta zergazko ez diren zorren erantzukizun deribazioko espedienteak instruitu.
- Urteko kontuen likidazioa eta aurkezpena prestatu, eta kobratzeko egindako saioren arrazoiak eta kudeaketak adierazi eta justifikatu, bai eta kasu bakoitzaren aplikazio zuzena ere.
- Beste departamentuetako teknikariekin eta politikariekin behar diren harremanak eduki.
- Beste udal eta erakunde publiko batzuekin harremanak eduki, zerga-bilketa arloko gaietan elkarlanerako bideak irekitzeko.
- Behar diren txostenak eta agiri tekniko guztiak egin (akordio proposamenak eta/edo araudiak, idatziak, iragarkiak, ofizioak...).
- Udalaren web-orrian eta beste euskarri batzuetan (sare sozialak, etab.) bere jardute-esparruari buruz sartu beharreko informazioa kontrolatu eta landu, eta etengabe eguneratzen dela ziurtatu, Informazio eta Komunikazio Teknologietako Departamentuarekin batera.
- Bere lanpostuaren eta/edo titulazioaren sailkapenaren arabera, langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartu, hala eskatzen zaionean.
- Era berean, eskatzen zaizkion bestelako lanak egin, bertiere lanpostua betetzeko eskatzen den kualifikazioaren arabekoak badira.

#### 4. Parte hartzeko betebeharrak eta baldintzak.

Hautaketa-probetan parte hartu ahal izango dute eskubiak aurkezteko epearen azken egunean honako baldintza hauek betetzen dituzten izangaiek:

- a) Espainiako edo Europar Batasuneko kide den beste edozein estatutako nazionalitatea izatea, edo, bestela, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen bat aplikatzearen ondorioz, langileen joan-etorri askea jarrita duen estaturen batekoa izatea. Espainiarren ezkontideek eta Europar Batasuneko gainerako estatuetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketa

- Dictar diligencia de acumulación o segregación de deudas.

- Dictar diligencias de embargo de bienes y derechos.

- Dictar alzamientos y cancelaciones de embargo.

- Alterar, en caso de solicitud por el interesado, el orden de embargo asegurando la eficacia y la prontitud del cobro.

- Investigar y recabar información de trascendencia tributaria de todo tipo de registros públicos, así como su actualización y depuración permanente de las propiedades de los deudores y anotarlo en los registros correspondientes.

- Gestionar los trámites previos a la enajenación de bienes inmuebles: valoración, cargas, títulos, etc., formulando propuesta al/ a la Tesorero/a en el procedimiento recaudatorio.

- Solicitar autorización al/la Tesorero/a para proceder a la subasta de bienes.

- Establecer los criterios de selección de recibos a enviar a Diputación para su gestión de cobro y seguimiento del mismo, así como para otros procesos recaudatorios.

- Seguimiento de los Procedimientos Concursales, informando a los administradores concursales de la deuda pendiente de cobro, controlando la inclusión en los convenios de acreedores y la calificación dada a la misma, así como la continuidad de la deuda post concursal.

- Elaborar y proponer a la Tesorera la aprobación de los expedientes de deudores fallidos, deudas incobrables, prescripciones, anulaciones, bajas por referencia, etc.

- Instruir los expedientes de derivación de responsabilidad de deudas tributarias y no tributarias.

- Preparar la liquidación y presentación de cuentas anuales, indicando y justificando los motivos y gestiones realizadas para el intento de cobro, así como la correcta aplicación de cada caso.

- Mantener los contactos necesarios con técnicos y políticos de otros departamentos.

- Mantener contactos con otros ayuntamientos y otros entes públicos con el fin de establecer canales de colaboración para asuntos de interés del Servicio de Recaudación.

- Realizar los informes pertinentes y todos los documentos técnicos que sean necesarios (propuestas de acuerdo y/o normativa, escritos, anuncios, oficios, ...).

- Controlar y elaborar la información de la página web del Ayuntamiento y en otros soportes (redes sociales, etc.) en relación a su ámbito de actuación, y asegurar su constante actualización, colaborando para ello con el departamento de Tecnologías de la Información y la Comunicación.

- Formar parte en los tribunales de selección de personal de acuerdo con la clasificación de su puesto y/o su titulación, cuando sea requerido para ello.

- Realizar, asimismo, aquellas otras tareas que se le encomienden, acordes con la cualificación requerida para el desempeño del puesto.

#### 4. Requisitos y condiciones de participación.

Podrán tomar parte en las pruebas selectivas quienes reúnan en la fecha en que finalice el plazo de presentación de instancias los siguientes requisitos:

- a) Tener nacionalidad española o la de cualquier otro Estado miembro de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores y trabajadoras. También podrán tomar parte el o la cónyuge de los españoles y de los nacionales de otros Estados miembros de

honetan, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude. Horien oinordekoek eta ezkontideen oinordekoek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude eta hogeita bat urtetik beherakoak baldin badira, edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira. Eta hori guztia, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 57. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

b) Hamasei (16) urte beteta izatea, eta nahitaezko erretiroa hartzera behartzen duen adina bete gabe izatea.

c) Lanpostuaren eginbeharrak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea. Baldintza hori bere garaian egiaztatu beharko da mediku azterketaren bidez.

d) Diziplina-espedita bidez, edozein administrazio publiko edo autonomia erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik berezita ez egotea; ebazpen judizialaren arabera, enplegu edo kargu publikorako ezgaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ez funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, ez, lan-legepekoen kasuan, bereziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko eginkizunen antzekoak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionalitatea izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere Estatuan ere baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko dionik.

e) Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun lege-kausaren batean sartuta ez egotea.

f) Diplomaturaren, unibertsitateko graduaren edo, indarrean dagoen legediaren arabera, horien baliokide den titulua edukitzea, edo titulu horiek eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko titulazioei dagokienez, horien homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki behar da.

g) Euskarazko 3. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea duela egiaztatzea (azken hori, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriaren arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera).

h) Zarauzko Udaleko karrerako funtzionarioa izatea, dau den eskaletako batean, lortu nahi den plazaren sailkapen-taldearen behe-hurrengoan edo talde berean.

i) Jatorrizko plazan bi urtean jardun izana, Zarauzko Udaleko karrerako funtzionarioen plantillan.

j) Jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan edo lanpostua gordetzeko eskubidea dakarren beste administrazio egoera batean egotea.

Oinarri hauetan aipatutako baldintza guztiak beteta eduki behar dira eskabideak aurkezteko epearen bukaeran, eta hala mantenduko dira, praktiketako funtzionario izendatu ondoren, lanpostua jabetzan hartzen den arte.

#### 5. *Eskaerak aurkeztea.*

Udalak prestatutako eredu ofizial eta normalizatua aurkeztuko dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaerak (oinarri hauen I. eranskina).

Eskaerak honako toki hauetan ere eskuratu daitezke:

– Zarauzko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzua (Kale Nagusia 29), astelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:00etara.

– Zarauzko Udalaren web-orrian ([www.zarauztz.eu](http://www.zarauztz.eu)).

la Unión Europea, siempre que no estén separados de derecho y sus descendientes y los de su cónyuge siempre que no estén separados de derecho, y sean menores de veintidós años o mayores de dicha edad dependientes. Todo ello según lo dispuesto en el art. 57 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

b) Tener cumplidos dieciséis (16) años de edad y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.

c) Poseer capacidad funcional para el desempeño de las tareas, lo que se comprobará en su momento mediante el correspondiente reconocimiento médico.

d) No haber sido separado/a, mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso a cuerpo escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente ni haber sido sometido/a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

e) No estar incurso en ninguna causa legal de incapacidad e incompatibilidad, de acuerdo con lo previsto en la Ley 53/1984, de incompatibilidad del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

f) Estar en posesión o haber abonado los derechos para obtener el título de Diplomatura o Grado universitario u otro declarado equivalente por la legislación vigente. En caso de titulaciones extranjeras se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

g) Acreditar estar en posesión de Perfil Lingüístico 3 de euskera o equivalente, este último de conformidad con la normativa vigente de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

h) Hallarse integrado en la plantilla de funcionarios de carrera del Ayuntamiento de Zarautz en alguna de las escalas existentes, en plaza de grupo de clasificación inmediatamente inferior a la que aspiran, o del mismo grupo.

i) Haber completado dos años de servicios en la plaza de procedencia, en el funcionamiento de carrera del Ayuntamiento de Zarautz.

j) Hallarse en situación de servicio activo, servicios especiales o cualquier otra situación administrativa que conlleve derecho a reserva de puesto.

Los requisitos enumerados en esta base deberán poseerse en el momento de finalizar el plazo de presentación de instancias y mantenerlos hasta el momento de la toma de posesión del puesto, tras el nombramiento como funcionario/a en prácticas.

#### 5. *Presentación de instancias.*

Las instancias solicitando tomar parte en el proceso selectivo se ajustarán al modelo oficial y normalizado preparado al efecto por este Ayuntamiento, el cual se adjunta a las presentes bases como anexo I.

Igualmente, las instancias podrán obtenerse en:

– En la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Zarautz (Kale Nagusia, 29), en horario de 7:30 a 15:00 horas, de lunes a viernes.

– En la página web del Ayuntamiento de Zarautz ([www.zarauztz.eu](http://www.zarauztz.eu)).



Zarauzko Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio lehiaketa-oposizio honetan onartua izateko eskaerak, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte baztertuak ez izateko:

a) Izangaiek adierazi beharko dute oinarri hauen laugarren atalean zehaztutako baldintza guztiak betetzen dituztela, beti ere eskaerak aurkezteko epearen bukaera-data erreferentziatzen hartuta.

b) Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Deialdian parte hartu ahal izateko eskatutako tituluaren kopia konpultsatua.

– Eskatutako hizkuntza-eskakizuna izan eta horregatik euskarako frogarik egin behar ez duenak, hala adierazi beharko du eskaeran, eta hori egiaztatzeko dokumentuaren kopia aurkeztu beharko du eskaerarekin batera.

Probak hasteko ordura arte aurkeztu ahalko dira euskarako proba ez egiteko ziurtagiriak; horretarako, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko zaio Epaimahaiari.

– Eskaeran adierazitako merezimenduak egiaztatzeko agiriak, merezimenduen fasean ebaluatuak izateko. Dokumentu horiek, nahitaez, jatorrizkoak edota fotokopia konpultsatuak izan beharko dute. Ez dira kontuan izango eskaeran alegatu ez diren merezimenduak eta/edo eskaerak aurkezteko epean eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuekin egiaztatu ez direnak.

Organo eskudunek egindako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira administrazio publikoetan betetako zerbitzuak. Lan egindako denbora, dedikazioaren portzentajea, betetako lanpostua eta egindako funtzioak zehaztuko dira bertan.

Zarauzko Udalean egindako zerbitzuak –eta beti ere eskaeran alegatutakoak– ez dira dokumentu bidez egiaztatu beharko, eta izangaien espediente pertsonaletan jasotako datuetan oinarrituta baloratuko dira.

Prestakuntza osagarria egiaztatzeko, ikastaroa eman duen erakunde ofizialak egindako ziurtagiria edo lortutako titulua aurkeztu beharko da. Horietan, ikastaroa antolatzen duen erakundearen izena, ikastaroaren izena eta ikastorduek agertu beharko dira derrigorrez, eta, ahal bada, prestakuntza programa ere bai. Epaimahaiak ez ditu kontuan hartuko oinarri hauetan eskatutako informazioa ematen ez duten ziurtagiriak.

Fotokopiak aurkezten badira, konpultsatuta egongo dira.

Eskabideak, behar bezala bete ondoren, Zarauzko Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztuko dira (Kale Nagusia 29, 20800 Zarautz), *Estatuko Aldizkari Ofizialean* deialdiaren iragarria argitaratu eta, hurrengo egunetik kontatzen hasita, hogeita (20) egun naturaleko epean.

Halaber, eskaerak aurkez daitezke urriaren 13ko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako moduren batean. Hala, kontuan, dagokion funtzionarioak data eta zifilua ipini beharko die eskaerei, eskaerak aurkezteko epearen barruan. Horrela eginez gero bakarrik ulertuko da eskaerak erregistroetan erregistratutako egunean sartu direla Udalaren Erregistro Orokorrean. Zifiluak eskabidean bertan egon behar du.

## 6. Izangaiek onartzea.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Alkatetzaren Dekretu bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onar-

Las instancias solicitando la admisión en el presente concurso-oposición se dirigirán al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zarautz, debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

a) Las personas aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones para ser exigidas en el apartado cuarto de las presentes bases, referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

b) Junto con la instancia deberá presentarse la siguiente documentación:

– Fotocopia compulsada del título exigido para tomar parte en la convocatoria.

– La persona aspirante que se encuentre en posesión del nivel lingüístico exigido y por ello exenta de la prueba de euskera, deberá manifestar este extremo en la instancia y aportar con ésta la fotocopia del documento acreditativo del mismo.

La acreditación documental para no realizar la prueba de euskera, se podrá efectuar hasta la hora de inicio de las pruebas correspondientes, aportando ante el Tribunal el certificado correspondiente.

– Documentos que acrediten los méritos alegados en la instancia, al objeto de su valoración en la fase de concurso. Estos documentos deberán ser, necesariamente, originales o fotocopias compulsadas. No serán objeto de valoración aquellos méritos que no se aleguen en la instancia y/o no se acrediten con la documentación presentada junto con la misma en el plazo de presentación de instancias.

Los servicios prestados en las Administraciones Públicas deberán ser acreditados mediante certificación expedida por el órgano competente, especificándose la duración de la relación de empleo, el porcentaje de dedicación, el puesto desempeñado y las funciones realizadas.

Los servicios prestados en el Ayuntamiento de Zarautz, siempre y cuando hayan sido alegados en la instancia, no habrá que acreditarlos documentalmente y se valorarán en base a los datos que obren en los expedientes personales de las personas candidatas.

La formación complementaria se acreditará mediante certificación expedida por el organismo oficial que haya impartido el curso o mediante la aportación del título obtenido. En ambos deberán aparecer necesariamente el nombre de la entidad organizadora, nombre del curso, y las horas lectivas de duración, y si es posible el programa formativo. No se computarán las certificaciones que no aporten la información requerida en las presentes bases.

En caso de presentar fotocopias, éstas deberán ser compulsadas.

Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Zarautz (Kale Nagusia, 29, 20800 Zarautz), dentro del plazo de veinte (20) días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

Igualmente, las instancias podrán presentarse en cualquiera de las formas señaladas en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En tal caso, deberán ser fechadas y selladas por la persona funcionaria correspondiente dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro General del Ayuntamiento en la fecha en que fueron entregadas en los mencionados Registros. Es la instancia la que debe estar sellada.

## 6. Admisión de las personas aspirantes.

Una vez finalizado el período de presentación de instancias, mediante Decreto de Alcaldía se aprobará la relación provisio-

tuko da –halakorik balego, baztertzeko arrazoiak adierazita–, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, eta Zarauzko Udaleko iragarki-taulan eta web-orrian ere zabalduko da.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedurarenak, 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenda horretan baztertuta ageri diren hautagaiei 10 egun balioduneko epea emango zaie –zerrenda hori aipatutako aldizkari ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita– bazterketa ekarri duten akatsak eta omisioak zuzentzeko.

Ebazpen horretan bertan, epaimahaiko kide titularren eta ordezkoen izendapena eta lehen ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua ere adieraziko dira.

Erreklamaziorik egon ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da automatikoki. Bestela, erreklamaziok onetsi edo ezetsi egingo dira, behin betiko zerrenda onartzen duen beste ebazpen baten bidez. Behin betiko zerrenda ere aurrekoa bezala argitaratuko da.

#### 7. Epaimahai kalifikatzailea.

Probak kalifikatzeko epaimahaia honela osatuko da:

Mahaiburua:

– Titularra: Udaleko idazkaria eta, ordezkoko gisa, Errentetako teknikaria.

Mahaikideak:

– Titularra: Udaleko kontu-hartzailea; ordezkoko: Kontabilitate eta aurrekontuetako teknikaria.

– Beste administrazio publiko bateko zerga-bilketako teknikaria.

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari bat (IVAP).

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat, edo horren ordezkoko funtzionarioa, deialdian eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak baloratzeko.

Idazkaria:

– Zarauzko Udaleko funtzionario bat.

Epaimahaiak dagokion gaian adituak diren aholkularien laguntza eskatu ahal du (hitza bai, baina botorik ez), egoki iruditzen zaizkion probetan. Aholkulariek beren espezialitate teknikoetan lagundu besterik ez dute egingo.

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, kide anitzeko organoei buruz xedatutakoaren arabera jardungo du epaimahaiak.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun kideen erdiak baino gehiago falta badira; nolahi ere, mahaiburua eta idazkariak bertan egon beharko dute beti. Erabakiak hartzeko, botoen gehiengo beharko da, eta, berdinketarik bada, mahaiburua botoak erabakiko du. Epaimahaiaren idazkariak ez du botoa emateko eskubiderik izango.

Epaimahaiko kideak prozeduran esku-hartzetik abstenitu ahal du, eta horren berri emango diote alkate-udalburuari; izangaiek ere epaimahaiakideak arbuiatu ditzakete, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 23 eta 24 artikuluetan adierazitakoaren arabera.

Inpartzialtasun eta profesionaltasunaren printzipio gidariek bideratuta, epaimahaiak erabateko independentziatz, diskrezio teknikoaz eta objektibotasunez jardungo du, eta haren proposamenek organo eskuduna lotuko dute, izendatzeko anean.

nal de aspirantes admitidos/as y excluidos/as, con indicación en su caso de las causas de exclusión, y dicha relación se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y será expuesta en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zarautz, así como en la página web municipal.

De conformidad con el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, a las personas aspirantes que figuren como excluidas en la citada relación provisional se les concederá un plazo de diez (10) días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la publicación de aquella en el referido Boletín Oficial, para subsanar los errores y omisiones que hubieran motivado la exclusión.

Asimismo, en dicha resolución se indicará la designación de los miembros titulares y suplentes del Tribunal Calificador, así como el lugar, fecha y hora de comienzo del primer ejercicio.

La lista provisional, se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentaran reclamaciones. Si las hubiera, serán estimadas o desestimadas, en su caso, en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva que se hará pública de la misma forma que la anterior.

#### 7. Tribunal Calificador.

El Tribunal Calificador de las pruebas estará compuesto de la siguiente forma:

Presidente:

– Titular: La Secretaria del Ayuntamiento y el Técnico/a de rentas como suplente.

Vocales:

– La Interventora del Ayuntamiento como Titular y la Técnico/a de Contabilidad y Presupuestos como suplente.

– Un técnico/a de recaudación de otra administración pública.

– Una persona designada por el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP).

– Una persona designada por el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), o el/la funcionario/a que le sustituya, a los efectos de valorar las pruebas de acreditación del perfil lingüístico exigido en la convocatoria.

Secretario:

– Un/a funcionario/a del Ayuntamiento de Zarautz.

En las pruebas en que lo considere conveniente, el Tribunal podrá recabar la colaboración de asesores/as expertos/as en la materia de que se trate, con voz, pero sin voto. Los/las asesores/as se limitarán a prestar colaboración en sus especialidades técnicas.

La actuación del Tribunal se ajustará a las disposiciones que sobre órganos colegiados dispone la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de más de la mitad de sus miembros, debiendo estar presentes, en todo caso, quienes ostentan la Presidencia y la Secretaría. Las decisiones se adoptarán por mayoría de votos, resolviendo, en caso de empate, quien actúe como Presidente. La Secretaria del Tribunal no tendrá facultad de voto.

Los miembros del Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo a la Alcaldía-Presidencia, y las personas aspirantes podrán recusarles, conforme a lo establecido en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

El Tribunal guiado por los principios rectores de imparcialidad y profesionalidad, actuará con plena independencia, discrecionalidad técnica y objetividad, y sus propuestas vincularán al órgano competente para el nombramiento.

Epaimahai kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du, eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izango du. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta lehiaketa-oposizio hau ondo garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu; horretarako, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruzko irizpideak jarriko ditu.

#### 8. Hautaketa-prozesua.

Oposizio-lehiaketaren bidez, sarbide mugatu bidez eta barne sustapenez hautatuko dira izangaia.

##### 8.1. Lehiaketa fasea.

Oposizio faseko ariketak hasi aurretik egingo da lehiaketa fasea. Ez da baztertzaila izango, eta bertan lortutako puntuazioa ez da kontuan hartuko oposizio faseko frogak gainditzeko.

Epaimahaiak honako merezimenduak baloratuko ditu, baldin eta eskaeran alegatu eta behar bezala egiaztatu badira, eta, beti ere, eskaerak aurkezteko azken eguna erreferentziatzat hartuta:

– Lan esperientzia.

a) Administrazio publikoan zerga-bilketarekin zerikusia duten funtzioetan egindako zerbitzuak: hileko gehienez 0,10 puntu (zati txikiagoak ez dira zenbatuko), gehienez 10 puntu osatu arte.

Ondorio horietarako, hauek izango dira administrazio publikoan egindako zerbitzuak: zuzeneko harremanaren bidez, funtzionario gisa edo lan-itunpeko langile gisa zuzenbide administratiboaren araubidean egindakoak. Ez dira baloratuko behin-behineko lanpostuetan egindako zerbitzuak (uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 96.4 artikuluan xedatutakoak), ez bekak, ezta prestakuntzako praktikak ere.

b) Administrazio publikoan arlo ekonomikoarekin zerikusia duten funtzioetan egindako zerbitzuak: zerbitzuko hilabete oso bakoitzeko 0,04 puntu (zati txikiagoak ez dira zenbatuko), gehienez 2 puntu osatu arte.

– Prestakuntza osagarria.

Administrazio Publikoek antolatutako edo homologatutako prestakuntza osagarria, deialdiko lanpostuarekin zerikusia duena: gehienez 5 punturekin baloratuko da, honako baremo honen arabera:

– Graduondoa edo masterra, 500 ordukoa edo gehiagokoa: 1,5 puntu tituluko.

– Graduondoa edo masterra, 250 ordukoa edo 500 ordura bitartekoa: 1 puntu tituluko.

– Prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak, etab.:

50etik 100 ordura bitarteko bakoitzeko: 0,25 puntu.

101etik 200 ordura bitarteko bakoitzeko: 0,50 puntu.

201etik 300 ordura bitarteko bakoitzeko: 0,75 puntu.

301 ordutik gorako bakoitzeko: 1 puntu.

##### 8.2. Oposizio fasea.

Oposizio faseak hiru (3) ariketa izango ditu, denak nahitaezkoak eta baztertzailak.

Oposizio ariketen hurrenkera ondorengo izango da; hala ere, epaimahaiak ahalmena izango du hurrenkera hori aldatzeko, hautaketa-prozesua egoki garatze aldera:

– Lehen ariketa: Teorikoa (galdetegia).

Hautazko erantzunak dituen galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio, Epaimahai Kalifikatzaileak jarritako denbora jakin

El Tribunal Calificador actuará con plena autonomía funcional, velando por la legalidad del procedimiento y siendo responsable de garantizar su objetividad. Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de las bases y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo del presente concurso-oposición, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en aquellas.

#### 8. Proceso de selección.

La selección de los aspirantes se llevará a cabo por sistema de acceso restringido, promoción interna, mediante concurso-oposición.

##### 8.1. Fase de concurso.

La fase de concurso se celebrará con anterioridad al inicio de los ejercicios de la fase de oposición, no teniendo carácter eliminatorio, ni podrá tenerse en cuenta la puntuación obtenida en la misma, para superar las pruebas de la fase de oposición.

El Tribunal valorará los siguientes méritos, siempre que hayan sido alegados en la instancia y debidamente acreditados, de acuerdo con la con referencia siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias:

– Experiencia profesional.

a) Servicios prestados en la Administración Pública en el desempeño de funciones relacionadas con Recaudación, se valorará con 0,10 puntos máximo por mes (no se computarán fracciones inferiores), hasta un máximo de 10 puntos.

A estos efectos, tendrán la consideración de servicios prestados en la Administración Pública los realizados mediante relación directa, bajo el régimen de derecho administrativo como funcionario/a o de derecho laboral. No serán objeto de valoración la prestación de servicios desarrollada en puestos de personal eventual, a tenor del artículo 96.4 de la Ley 6/1989 de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, ni las becas y prácticas formativas.

b) Servicios prestados en Administración Pública en el desempeño de otras funciones relacionadas con el área económica, a razón de 0,04 puntos por cada mes de servicios completo (no se computarán fracciones inferiores), hasta un máximo de 2 puntos.

– Formación complementaria.

Se valorará la formación complementaria relacionada con las funciones del puesto convocado, organizada y homologada por las Administraciones Públicas, hasta un máximo de 5 puntos según el siguiente baremo:

– Postgrado o Máster de duración igual o superior a 500 horas: 1,5 puntos por título.

– Postgrado o Máster de duración igual o superior a 250 horas y menor de 500: 1 punto por título.

– Cursos de Formación, Jornadas, etc.:

Por cada uno de 50 a 100 horas de duración: 0,25 puntos.

Por cada uno de 101 a 200 horas de duración: 0,50 puntos.

Por cada uno de 201 a 300 horas de duración: 0,75 puntos.

Por cada uno de duración superior a 301 horas: 1 punto.

##### 8.2. Fase de oposición.

La fase de oposición constará de tres (3) ejercicios, todos ellos obligatorios y eliminatorios.

El orden de los ejercicios de la oposición, en principio, será el siguiente, correspondiendo al Tribunal la potestad de modificarlo, con el fin de conseguir un buen desarrollo del proceso selectivo:

– Primer ejercicio. Teórico (cuestionario).

Consistirá en responder por escrito, durante el tiempo que determine el Tribunal Calificador, a un cuestionario con respues-

batean. Oinarri hauen eranskinean jasotako gai-zerrendako gaiet buruzkoa izango da, eta erantzun bakarra izango da zuzena.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du erantzun okerrak zigortu ala ez; ariketaren hasieran emango da horren berri.

Gehienez 10 punturekin baloratuko da, eta proba gainditzeko beharrezkoa izango da 5 puntu lortzea.

– Bigarren ariketa. Teoriko-praktikoa.

Oinarri hauen eranskinean adierazitako gaiekin lotura duen kasu praktikoa bat edo batzuk egingo dira.

Oposizio-gileak une oro aukera izango du beharrezko iruditzen zaizkion legezko testuak erabiltzeko. Testuok berak eraman beharko ditu deialdian adierazitako lekura, paper euskarrian.

Gehienez 30 punturekin baloratuko da, eta proba gainditzeko beharrezkoa izango da 15 puntu lortzea.

– Hirugarren ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzaila, egiaz-tatu ez duten izangai guztientzat. 3. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeko probak.

Idatzizko eta ahozko probak egingo dira, 3. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatzeko. Ariketa hau Gai edo Ez Gai kalifikatuko da.

Ez dute euskarako azterketa egin beharrik izango euskararen ezagutza-maila egiaztatzeko azterketak egin baino lehen Epaimahaiari 3. Hizkuntza Eskakizunaren egiaztagiria aurkeztu diotenenek.

3. Hizkuntza Eskakizuna agiri hauen bidez egiaztatuko da:

– Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria (IVAP), hizkuntza-eskakizuna duela frogatzen duena.

– Beste ziurtagiri baliokide batzuk, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitze indarrean dagoen araudiak diotenaren arabera.

#### 9. Deialdiak eta jakinarazpenak.

Zarauzko Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko dira hautaketa-prozesuko probak egiteko deialdiak eta Epaimahai Kalifikatzaileak egin beharreko jakinarazpen eta komunikazio guztiak.

#### 10. Proben emaitzak argitaratzea eta probak berrikustea.

Ariketa bakoitzaren emaitzak argitaratu ondoren, gutxienez hiru (3) egun balioduneko epea emango da azterketak edo merezimenduen balorazio-emaitzak berrikusteko; eta, ondoren, azterketaren edo merezimenduen balorazio-emaitzen berrikuspenetik kontaktzen hasita, beste bi (2) egun balioduneko epea erreklamazioak egiteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztuko zaizkio epaimahaiburuari, Udaleko Erregistro Orokorrean.

#### 11. Ariketen eta merezimenduen kalifikazioa eta epaimahaiaren proposamena.

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko, oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortu dituen puntuak batuko dira, eta batura horrek zehaztuko du hautagaien lehentasun-hurrenkera.

Oposizio eta lehiaketa faseetako puntuazioa batu eta berdinketa gertatuz gero, honako irizpide honen arabera konponduko da: oposizio fasean puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde.

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen balorazioa bukatu ondoren, Epaimahaiak Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian

tas alternatibak, siendo solo una de ellas la correcta, referente a las materias que figuran en el temario que se adjunta como anexo de estas Bases.

Queda a criterio del Tribunal Calificador la penalización de las respuestas incorrectas, lo cual se hará público al comienzo del ejercicio.

Se valorará sobre un máximo de 10 puntos, siendo necesario obtener 5 para superar la prueba.

– Segundo ejercicio. Teórico-práctico.

Consistirá en la realización de uno o varios casos prácticos que guarden relación con los temas reseñados en el anexo a las presentes Bases.

